

## **Gobernantza sistema berri baterako bidean Gipuzkoan**

**Markel Olano, Gipuzkoako diputatu nagusia**

**2010/09/02**

Egunon guztioi eta mila esker ekitaldi honetara etortzeagatik.

Benetan pozgarria da niretzat kultura politiko berriari buruzko ikastaro honi hasiera ematea. Hirugarren aldiz, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak kultura politiko berriaren ardatz nagusi bat aztertzen dute elkarrekin. Aurtengo ikastaroaren gaia kultura politiko berriaren eta balioen arteko harremana izango da, hain zuzen.

Lau hausnarketa luzatu nahi dizkizuet gaurko saioan:

- Lehen hausnarketa, balioez egin nahi nuke, politikaren muina diren neurrian.

- Bigarrenik, gure lurraldeko erakunde, enpresa eta elkarteekin batera Gipuzkoako Foru Aldundian bultzatzen ari garen gobernantza sistemaz nahi nuke mintzatu.

- Hirugarrenik, nire ikuspegi pertsonala eman nahi nizueke politikaz.

- Eta, amaitzeko, gure lurraldean eta Euskadin bizi dugun une politikoa aztertu nahi nuke laburki.

Balioak politikaren oinarriak dira. Baliorik gabe, ez dago bidezko politikarik. Legealdi honetan gipuzkoarren aurrean hartu genuen konpromisoa hauxe izan zen: balioetan sustraitutako kultura politiko berria sustatzea gure lurraldean.

Gure konpromisoarekin eta gure ekintzekin politikatik aldendu diren pertsonen konfiantza berreskuratu nahi dugu.

Politikaren esparruan balioez mintzatzen garenean, gizabanakoen balioak bezala, balio kolektiboak ere kontuan hartu behar ditugu. Pertsona guzti-guztien balioak, alegia. Lehenik, bizitza eskubidea dago. Inork ezin du besteren bizitzaren gainean erabaki.

Horregatik, funtsezkoa da gure gizartea etikoki gotortzea ETArean aurrean, ezinbestekoa da gure konpromiso erabatekoa indarkeriak sortu dituen biktima guztien ezagutza egin eta laguntza emateko.

Bihar ez bada etzi (eta espero dezagun laster izatea) indarkeria amaitu egingo da Euskadin.

Indarkeriaren amaierak aukera emango dio gure herriari bere ahalmen guztia zabaltzeko gizartean, ekonomian edo kulturean. Gure herriaren «pizkunde» bat ekarriko du. Aukera bakarra da, eta etekin guztia atera behar diogu.

Gizabanakoen balioen aldeko gure konpromiso sendoarekin batera, eskubide kolektiboak, nazioen eskubideak ere aitortu eta aldeztu behar ditugu, pertsonak taldetan txertatzen diren neurrian.

Herri guztiek etorkizunaz erabakitzeko eskubidea dutela uste dut, inolako zalantzarik gabe. Gizarte askotariko eta aurreratu guztiak itxuratzen dituzten printzipio demokratikoetan oinarrituta, noski. Indarkeria darabiltenen esku-hartzerik edo presiorik inoiz onartu gabe. Baina gaur, erabakitzeko eskubidea eta bere gauzatze juridikoa funtsezko balioa da, bultzatu beharrekoa.

Zalantza eta aldakuntza garaiak bizi ditugu. Ekonomiaren beheraldia aurrekoetan baino sakonagoa eta luzeagoa ari da gertatzen. Krisiaren jatorria oso estuki dago lotuta finantzaren esparruan oinarritzko erreferentzia etikoen galerarekin.

Zorionez, Gipuzkoan espekulazioaz gaindiko enpresa sare sendo bat gorde izan dugu, ongi egindako lanaz, ahaleginaz, jarraitasunaz, erantzukizunaz eta sustrai sozialez harro sentitzen dena.

Enpresa sare horri laguntzeko konpromiso sendoa daukagu, epe luzean aberastasuna eta lana sortzeko gaitasuna duenez, eta epe laburreko irabazia lehenetsi dutenen aldean garaitasun moral argi bat erakusten duenez.

Azken hamarkada hauetan, gure gizartean norberekeria asko hedatu da, gure balio erkide batzuk auzitan jartzeraino, agian.

Ez da Gipuzkoan bakarrik gertatu den gaitza, baizik gizarte aurreratu guztietan berdin zabaldu dena. Aspaldidanik, aditu asko (horien artean, datorren irailaren 14an gure artean izango dugun Robert Putnam) alerta ari dira jartzen Estatu Batuetan kapital soziala pairatzen ari den ahultze prozesuaz.

Gune publikoak eta aisialdia pribatizatzea, edo bizilekuak lantokietatik gero eta urrunago egotea, esate baterako, gizarte sareak garatzeko erronka eta aukera berrietarako fenomenoak dira.

Foru Aldundia, Gipuzkoa Sarean ekimenaren bitartez, lankidetzan ari da Gipuzkoako eragile nagusiekin, gure kapital soziala indartzeko aukerak behar bezala baliatzeko xedez.

Bide horretan, teknologiak eta hirigintza edo lurralde plangintza era berritzaile batean erabili nahi genituzke, unibertsitateekin, enprekin eta elkarteekin batera, Gipuzkoako sare sozialak eta lehiakortasuna indartzeko.

EHUrekin eta London School of Economics erakundearekin batera bultzatzen ari garen Gizarte Berrikuntzako Zentroak aukera berri bat emango digu, bide horretan lasterrago aurreratzeko.

Labur esanda, erakunde publikoek arreta berezi bat eman behar diegu gure gizartearen balioei. Eragile publiko nahiz pribatuekin eskuz esku lankidetzan aritu beharra daukagu balioen esparruan, horiek baitira benetako oinarria politika publikoetan, enpresen proiektuetan edo gizartearen ekimen guztietan.

Mintzaldi honen bigarren hausnarketa gure gobernantza sistemari buruzko egin nahi nuke.

Globalizazioak eginkizun berriak ezartzen ditu nazioarteko mailan, baita maila lokalean ere, lidergo sendo bat eta erantzukizun politiko bat eskatzen ditu.

Globalizazioaren eginkizunak gainditu eta aukera guztiak baliatu nahi baditugu, gobernantza eredu berri bat behar dugu Gipuzkoan.

Gure lurraldearen lehiakortasunak eta gipuzkoar guztien ongizateak gobernantza sistema berri bat behar dute, herri erakundeek eta gizarteak etorkizuneko ikuspegi bat partekatu behar dute, eta ekintza multzo bat ere bai, ikuspegi hori gauzatzera iristeko.

Gobernantza sistemak eraginkortasuna eta eragimena ezkondu behar ditu botere publikoen eginkizunetan, herritarren partaidetza trinko batekin, politika publiko guztiak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzerakoan.

Gobernantza sistema berri bat behar dugu, esparru publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren bitartez herri erakundeen, enpresen eta gizarte osoaren ekintzak elkartzeko, helburu partekatu batzuk lortzeko.

Gure nortasunean oinarritu behar da gobernantza sistema hori: irekia, askotarikoa, konplexua, modernoa eta bereizgarria, globaltasunarekin lotua.

Gobernantza sistema berriak Gipuzkoako eragile guztien arteko lankidetzara bilatu behar du, lehiaren ordean.

Gipuzkoa Aurrera aliantza estrategikoaren bitartez edo Herritarren Partaidetzari buruzko Foru Arauaren bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundia urrats berritzaile eta sendoak egiten ari da gobernantza eredu berri horren aldera. Gobernantza era berri bat, kultura politiko berri bat, lidergo partekatua bat behar dugu.

Elinor Ostrom, ekonomia Nobel saria 2009an jaso zuen lehen emakumeak bere bizitza osoa eman du lankidetzara aztertzen, ekonomilari gehienak lehiakortasuna aztertzen zuten bitartean. Ekintza erkidearen erakundeek izan duten arrakasta eta etorkizuneko ahalmena erakutsi izan digu. Horretarako, komunikazioa, konfiantza eta sare sozial garatuak behar ditugu, hitz batean, kapital soziala behar dugu.

Arrasateko kooperatiben arrakastak erakusten du, argi eta garbi, gure inguruneak daukan gaitasun guztia. Gipuzkoan aitzindariak izan gara lankidetzaren esparruan, eta nazioarteko esparruetan aitorpen handia duten adibideak ditugu.

Nire uste sendoa da Gipuzkoaren orainak eta geroak gobernantza sistema berri bat behar duela, lidergo partekatua oinarritua.

Halakorik eraikitzeko aktiborik onena ditugu. Eta horretan ari gara lanean egunez egun.

Hirugarrenik, nire ikuspegi pertsonala eman nahi nizueke politikari buruz. Nire iritziz, politikarion betebeharrak bat da lotsaizunik gabe azaltzea gure eguneroko langintzara eramaten gaituzten arazoak, batez ere klase politikoak izena aski galdurik duen garaioan.

Nire herriarekiko konpromiso bat da politika niretzat. Errealitatea aldatu, eta gure elkarbizitza eta ongizatea hobetzeko proiektu partekatua bat garatzeko bide bat da. Norberaren handinahiak albo batera uztera behartzen zaituen zerbitzu bat da, bidegabekeriak eta inposizioak gaindituz.

Euskal abertzaletasun moderno eta bateratzaile bat nahi dut, gure nortasuna ingurune global batean zaindu eta garatzeko gai izango

dena. Jatorrizko printzipioei eutsi eta gure proiektu politikoak gauzatzeko zilegitasunaren eskubidea albo batera utziko ez duena.

Gipuzkoa gizartea konplexu, ireki eta askotarikoa da. Gure gizartearen, gure herritarren konfiantzari erantzun behar dio politikak. Haien zerbitzura gaude, eta ezin diegu hutsik egin. Botoa guri eman zigutenei, botoa besteri eman ziotenei, eta botoa ematerik edo emateko gogorik izan ez zutenei.

Lidergo partekatuak eta irekiak behar ditugu, gizarteari argi eman eta bidea erakusteko gaitasuna dutenak. Nire ustez, lidergo partikularrak ez dira gai gure eginkizunei aurre egiteko.

Soiltasuna, gardentasuna eta ustelkeriaren aurkako jarrera irmoa dira, nire ustez, ekintza politikoaren oinarrizko printzipioak. Guztiz sinetsirik nago politika jardura ohoragarri bat dela, eta gure herriarentzako oinarrikoa dela.

Uste dut gizarte osasuntsu batek konpromisoan eta elkartasunean sustraitutako herritarrak behar dituela. Eta politika dela konpromiso hori bideratzeko tresna baliotsuenetako bat.

Herritarren partaidetza da, berriz, herri erakundeek sustatu beharreko funtsezko aktiboa. Demokrazia ez daiteke mugatu lau urtez behin bozkatzera; urtean 365 egunez partaide izatea da. Teknologia berriei esker, bide horretan aurrera egiteko erraztasun handiak ditugu.

Sarean gobernatu behar dugu, gure lurraldeko beste erakunde, enpresa eta elkarteekin batera. Bakoitzak bere erantzukizunak hartu behar ditu, proiektu erkide baten alde, etorkizuneko eginbeharrei aurre egiteko gaitasun zibikoa garatuz.

Uste dut erantzukizun politikoa ohore eta ilusiorik handiena dela edonorentzat. Gure denbora eta neke pertsonalak ematea merezi du, bizi kalitatea ez baita neurtzen dauzkagun gauzen arabera, baizik gure bizitzari ematen diogun zentzuaren arabera.

Izan ere, politika da gure etika erkidea. Gu guztiok batzen gaituenaren etika. Gipuzkoa eta Euskal Herria deitzen dugun proiektu zoragarri honen etika.

Euskadi trantsizio une batean bizi da. Indarkeriaren aroa gainditu nahi dugu denok. Indarkeriari zilegitasuna ematen dion oxigenoa amaitzen ari da; hori da terrorismoaren amaieraren benetako aurpegia.

Baina ETAREN indarkeriaren amaiera nola itxuratu eta gauzatuko ote den, oso garrantzizkoa da eraiki nahi dugun etorkizunari buruz.

Nire irudiko, Euskadi askotariko eta ireki bat behar dugu, proiektu politiko guztiei garatzeko aukera emateko gai dena; horregatik, ez dut uste indarkeria amaitzeko modua izan daitekeenik proiektu politiko bat (hau da, Ezker Abertzalearen proiektua) suntsitzea, baizik sistema politikoan txertatzea aukera politiko guztiak, salbuespenik gabe.

Egia da indarkeriak normaltasun politikoa bahitu digula, baina egia da, baita ere, bazterrera bidali dituela aukera guztiak sendotasun gehiagoz aztertzeko euskal gatazka politikoa: euskal herria badela onartu, eta erabakitzeko eskubideari behar lukeen tokia ematea legeen barruan.

Batzuek «normaltasun politikoa» identifikatzen dute gehiengoaren eskakizun hori indargabetzearekin, eta abertzaletasun demokratikoa erakundeen zuzendaritza politikotik baztertzearekin.

Bistan da ez naitekeela bat etorri ikuspegi horrekin, ez hainbeste abertzale sentitzen naizelako, baizik, batez ere, gizabanakoen eta gizataldeen benetako pluraltasuna delako niretzat demokrazia. Pertsona guztiek izan behar dituzte eskubide berberak, eta printzipio honek berdin balio behar luke eskubideak erabili nahi dituen nortasun kolektibo ororentzat ere.

Uste dut Euskadin Alderdi Popularrak eta Alderdi Sozialistak darabilten estatu estrategia, abertzaleok erakundeetatik kanpo uzteko, «demokraziaren desitxuratze» bat dela, herria normalizatu nahi baitu benetako arazoei izkina eginez, eta aniztasuna pobretuz, errealitate askotariko eta konplexu bat alderdi konstituziozaleen Estatu ikuspegi mugatuaren barruan sartu nahirik.

Galdeketak egin direnean, behin eta berriz erakutsi dute euskal gizarteak ez duela batere konfiantzarik formula horren gainean, konponbideak ez baitira inoiz iritsi bazterketaren oinarrian; alderantziz, elkarrizketa eta adostasuna izan behar dira beti joko demokratikoaren tresna eta oinarrizko helburu. Formula hori zabaldu nahia ez da onartua izango Euskadin, eta ziur nago Gipuzkoak, bere etorkizuna eraikitzeko bidean, indar osoz baztertuko duela aukera hori.

Uste dut une politiko honetan funtsezko bi xede ditugula Euskadin: Lehena da indarkeria behingoz amaitzea, ETA desagertzea, eta, aldi berean, Ezker Abertzalea sistema demokratikoaren barruan txertatzea; eta bigarrena da gure erakundeen sistema berreraikitze lan demokratiko bat egitea, hiru zutarrien gainean: lehena, demokrazia guztientzako bat sortzea; bigarrena, euskal gizartearen benetako eskakizunak aintzat hartzea; eta hirugarrena, gaur egungo erakundeen sistema bideratzea estrategia berrietara, erabakitze eskubidea etorkizunean gure legedian jaso izan dadin.

Halako eginbehar handi bat ezin dezake egin alderdi politiko bakar batek, eta ezin daiteke egin euskal gizarteari bizkar emanda edo gizartearen benetako eskakizunei jaramonik egin gabe; ezinbestekoa da, beraz, ikuspegi honekin bat datozen guztien artean elkarlan trinko bat eratzea.

Gure erakunde sistemaren eraldakuntza, herri gisa dagozkigun eskubideen alderdi guztiak aintzat hartuak izan arte, ez daiteke une bakoitzeko interes politikoen mende egon, baizik aztertu behar da negoziaketa egiturazkoago baten barruan. Eta hori egin ahal izango dugu, bakar-bakarrik, euskal gizarteak ozenki eskatzen badu, jarraitasunez, jarrera zibiko eragile eta demokratiko batez, aldakuntza bide horretatik etor dadin. Aurrerantzean egiteko gelditzen zaigun lana ikaragarria da, eta ez da soilik alderdi politikoen erantzukizun, baizik euskal gizarte osoarena.

Amaitzera nator. Gure jokabideak baldintzatzen dituzten balioak dira gure kultura demokratikoaren oinarri; Euskadi urte luzeegiz egon da indarkeria, gatazka eta adostasunerako ezgaitasun giro batean murgildurik. Esperantzari leiho bat irekitzeko garaia da, bake giro batean zabal ditzagun, beldurrik gabe, euskal gizarte heldu honek merezi dituen eztabaidak.

Konpromiso horretan saiatuko gara, eguneroko lanean.

Mila esker.